



Ref.:

SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de Tráfico

### 3/ 2020 INSTRUKZIOA (TLB-2/ E-2/ ETKZ-3)

**GAI A:** ZIRKULAZIO-BAIMEN BEREZIAK COVID-19AK ERAGINDAKO ALARMA-EGOERAN ZEHAR.

Alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko ezohiko neurriak hartu dituenak, hirugarren xedapenaren 3. zenbakian honako hau ezartzen du: organo eskudunak behar-beharrezkoak diren antolamendu- eta instrukzio-neurriak hartu ahal izango ditu, interesdunak prozeduran dituen eskubideetan eta interesetan kalte larriak saihesteko.

Aurrekoan oinarrituta, eta egungo egoeran funtsezko ondasunen hornidura eta hornikuntza bermatzeko errepide bidezko salgaien garraioaren funtsa kontuan hartuta, honako hau erabaki da:

1.- Alarma-egoerak eta haren luzapenek irauten duten bitartean iraugiko diren **zirkulazio-baimen berezien indarraldia 6 hilabetez luzatzea, salbuespen gisa**. Horrek honako hauek luzatzea dakar:

- Zirkulazio-baimen osagarriak ibilgailu berezientzat (obrado, zerbitzuetako edo nekazaritzako ibilgailuak), eta garraio bereziaren araubideko ibilgailuentzat (VERTE) eta haien taldeentzat.
- Konfigurazio euromodularrean dauden ibilgailu-taldeentzako baimen berezia.

Bi kasu hauetan, luzatutako baimenean ezarritakoak izango dira zirkulazio-baldintzak, bidaiak egin aurreko abisuak eta, hala badagokio, laguntza-araubidea barne.

2.- Salbuespenez, eta alarma-egoerak eta bere luzapenek irauten duten bitartean, **konfigurazio euromodularreko ibilgailu-multzoek** edozein autobide edo autobia, eta errepide arrunten ezinbesteko tarteetan **zirkulatzeko baimen berezia lortzetik salbuestea**, ahal dela, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako galtzada bereziak izatea, baita bi errei noranzko bakoitzeko ere, zamalanetarako guneetara iristeko.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T20X4-PABE bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T20X4-PABE en la sede electrónica <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>  
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tef. 945 01 87 44 - Fax 945 01 87 50

Zirkulatzeko, [www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus) webgunean kontsulta daitezkeen zirkulazio baldintzak bete beharko dira.

3.- **Salbuespenez**, eta alarma-egoerak eta bere luzapenek irauten duten bitartean, **zirkulazio-baimen osagarri bat lortzetik salbuestea** zirkulatzeko errepideen titularrek oro har jakinarazitako EAeko bide guztietatik (Euskadi-Euskadi ibilbidea) VEX eta VERTE ibilgailuei, baldin eta haien neurriek eta masek ez duten **muga komun** hau gainditzen:

|              |                                |
|--------------|--------------------------------|
| Luzera (L)   | ≤ 35 m                         |
| Zabalera (a) | ≤ 4,5 m                        |
| Altuera (h)  | ≤ 4,5 m                        |
| Masa (M)     | ≤ 75 Tn                        |
| MARDATZ      | VERTE: Ikus taula <sup>1</sup> |
|              | VEX ≥ 7 ardatz: 12,6 t/ardatz  |

<sup>1</sup> Ikus: [www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus)

Xedapen bera aplikatuko zaie **obra eta zerbitzuetako ibilgailuei**, Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoetan zirkulatzeko ahalbidetzen duten lurralde-muga hauetaraino zirkulatzeko:

|              | Araba        | Bizkaia  | Gipuzkoa          |
|--------------|--------------|----------|-------------------|
| Luzera (L)   | ≤ 35 m       | ≤ 40 m   | ≤ 40 m            |
| Zabalera (a) | ≤ 4,5 m      | ≤ 5 m    | ≤ 5 m             |
| Altuera (h)  | ≤ 4,5 m      | ≤ 4,5 m  | ≤ 5 m             |
| Masa (M)     | ≤ 100 Tn     | ≤ 100 Tn | ≤ 75 Tn           |
| MARDATZ      | <sup>1</sup> | ≤ 12,6   | ≤ 13 <sup>2</sup> |

<sup>1</sup> Ez da mugarik egongo, baldin eta VEXak 7 ardatz baino gehiago ez baditu edo 75 tonako masa gainditzen ez badu.

<sup>2</sup> Zubiak Gipuzkoan igarotzeko murrizketak (debekuak) errespetatuz.

Neurri bera hartuko da **Arabako edo Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan zirkulatzeko ari diren ibilgailuentzat, lurralde bakoitzeko**

**errepide-organoak jakinarazitako mugetaraino.** Muga horiek honako hauek dira:

|              | Araba  | Bizkaia   | Gipuzkoa             |
|--------------|--|---|----------------------|
| Luzera (L)   | ≤ 35 m   | ≤ 40 m  | ≤ 40 m               |
| Zabalera (a) | ≤ 4,5 m  | ≤ 5 m   | ≤ 5 m                |
| Altuera (h)  | ≤ 4,5 <sup>1</sup> m   | ≤ 4,5 m   | ≤ 5 m                |
| Masa (M)     | ≤ 100 Tn   | ≤ 100 Tn  | ≤ 75 Tn              |
| MARDATZ      | Taula:<br><a href="http://www.trafikoa.eus">www.trafikoa.eus</a> | RGV < Meje ≤ Taula<br>1.eranskina eta<br>RGV < M ardatz ≤ IAT | RGV < M ardatz ≤ IAT |

<sup>1</sup> N-240 errepidetik (Gamarrako lotunea) eta A-1 km 322 errepidetik (Rivabellosa) izan ezik, 4,45 m-ko altuera-muga baitute.

Zirkulatzeko, Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorraren III. eranskinean jasotako zirkulazio-baldintzak bete beharko dira. Era berean, nahitaezko abisuak egin beharko dira, bideen titularrek jakinarazitako igarotze-murrizketak eta igarotze-erreserbak begiratu beharko dira, eta, hala badagokio, laguntza-araubidea bete beharko da. Aurreko guztia hemen kontsultatu behar da: [www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus).

Zehaztutako kasu guztietan, osasun-agintariek emandako gomendio eta betebeharrak guztiak errespetatu beharko dira.

Vitoria-Gasteiz,

**Trafikoko zuzendaria**  
**SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA**